

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
<p>1. Zenbaki arrazionalak, irrazionalak eta errealak erlazionatu, euren arteko eragiketak (berreketa, erroketak) eta propietateak erabili informazioa biltzeko, aldatzeko eta trukatzeko, eta eguneroko bizitzako problemak eta arlo zientifikoko problemak ebazteko.</p>	<p>1.1. <i>Kalkulagailua erabiliz edozein motatako zenbakizko adierazpenen arteko eragiketak egiteko gai da.</i></p> <p>1.2. <i>Berreketen propietateak ezagutzen ditu eta adierazpen konplexuak sinplifikatzeko erabiltzen ditu.</i></p> <p>1.3. <i>Idazkera zientifikoko arauak zuzen aplikatzen ditu eta hauen eragiketak zuzen burutzen eta aplikatzen ditu eguneroko bizitzako problemetan.</i></p> <p>1.4. <i>Unitate aldaketak bihurketa faktoreak erabiliz eraldatzen ditu.</i></p> <p>1.5. <i>Erroketa-berreketa eragiketak definizioaren bitartez eraldatzen ditu.</i></p> <p>1.6. <i>Erroen arteko eragiketa konplexuak kalkulatzeko erabiliz: batuketa, kenketa, biderketa, zatiketa, berreketa eta erroketak.</i></p> <p>1.7. <i>Erroen bidez adierazitako adierazpenak sinplifikatu ditu eta emaitzak arrazionalizatu ditu.</i></p>
<p>2. Funtzio esponenzialaren eta logaritmikoaren adierazpen moldeak eraldatu, berreketa eragiketarik abiatuta, eta funtzio horiekin eragiketak egin.</p>	<p>2.1. <i>Funtzio esponenzialarekin eta logaritmikoarekin erlazionatutako adierazpenak eraldatu ditu propietate egokiak baliatuz, eta, adierazpen horiekin eragiketak eta ekuazioak zuzen egin eta ebatzi ditu.</i></p>
<p>3. Funtzio esponenzialarekin eta logaritmikoarekin erlazionatutako modelo edo eredu matematikoak baliatuz, informazioa atera hazkunde eta txikitze esponenzialarekin zerikusia duten fenomenoak argitzeko.</p>	<p>3.1. <i>Funtzio esponenzialarekin eta logaritmikoarekin erlazionatutako problemetan, informazio berria lortzeko urratsak planifikatu ditu: egitekoa zehaztu, modelo egokia aukeratu eta ekintza-plan bat sekuentziatu du.</i></p> <p>3.2. <i>Modelo aljebraikoa eraldatu du eta kalkulu matematikoa baliatuz, emaitza zuzenak lortu ditu.</i></p>